Jesusek erantzun: “Bainatu denak ez du garbitu beharrik , erabat garbi baitago, eta zuek garbi zaudete, baina ez denok.”

Izan ere, bazekien zeinek salduko zuen; horregatik esan zuen: «Ez zaudete denok garbi».

Oinak garbitu zizkienean, soingainekoa jantzi, berriro mahaian eseri eta esan zien: “Ulertzen duzue egin dizuedana? Zuek Maisu eta Jauna deitzen didazue, eta arrazoi duzue, halaxe bainaiz. Beraz, nik, Jauna eta Maisua naizen honek, zuei oinak garbitu badizkizuet, zuek ere garbitu oinak elkarri. Ikasbide eman dizuet, zuek ere, nik zuekin bezalaxe, joka dezazuen.”

“Bene-benetan diotsuet: Ez da morroia nagusia baino handiago, ezta bidalia ere bidaltzailea baino handiago. Ulertzen duzue hau, ezta? Bada, zorionekoak izango zarete, betetzen baduzue.”



Elkarrizketa

- **Ipuinean zer egin du Elenek zoriontasuna lortzeko?**
- **Zein zen sekretua?**
- **Jesusek zer egiten du afaltzen hasi aurretik?**
- **Bere lagunek ez dute ulertu zergatik egin duen hori Jesusek? Zer erakutsi nahi die?**

Abestia: Argitik argia

IRATZEDER / JO MARIS

1- Jaunak bihotzean eman daut argia,
kantuz pitz dezadan denetan ongia.

Argitik argia sortzen den bezala,
guk egin ongia hedatuz doala,
argitik doala, argitik argia

2- Ni naiz dio Jaunak, munduko argia,
ibil ongi denak pizteko bizia.

3- Argi seme izan denak bat abia,
elgar maitatzean zerurat lehia.

https://kantajaunari.eus/wp-content/uploads/2024/01/AEZK_R-26-Argitik-argia_Aupa-Jainkoa-I.mp3

Haurtzaroko eta Nerabezarako Katekesiaren Gotzain Ordezkaritza

ETXEKO ELIZA

IKASTURTE HASIERA



Otoitzean

Donostiako Gotzaindegia
Obispado de San Sebastián

6. Zbk



Hasi aurretik

Otoitz giroan, familiakoen artean, ipuin bat irakurriko dugu eta ebanjelioko zati bat. Ea zertara animatzen gaituzten. Guztion artean pentsatu ta hausnartzera gonbidatzen zaituztet.



Ingurua girotu dezakegu

Mahai baten gainean kandela bat piztu dezakegu (Jainkoak argi egiten digula ikusarazteko eta bera ere gure artean dagoela adierazteko). Seme-alabei prestaketan laguntzeko eskatuko diegu.

Ebanjelioa irekita: Joan 13, 1-17 orrialdean. Ipuina inprimaturik edo gailuren batean irakurtzeko prest.

Inguruan eseri eta haurrei ongi azaldu zer egitera goazen. Nolako giroa behar dugun eta nola egongo garen.

Tximeleta edo maitagarri baten irudi bat mahai gainean, ipuina gogorarazteko eta Biblia, Jesusen erakutsiak bertan ditugulako. (Erlijiozko beste ikur bat ere jarri dezakezue: gurutzea, familia santua...)



Ipuina: Zoriontasunaren sekretua

Elena neskatxo gozo eta despistatu samarra zen, eta asko gustatzen zitzaion etxe atzeko basoan paseatzea. Bertan zuen bere gordeleku gustukoena.

Egun batean, oinez zihoala, tximeleta bat ikusi zuen sasi artean harrapatuta. Kontu handiz, hegoak ez hausteko, askatu egin zuen. Tximeleta, hegaz apur bat urrundu ondoren, itzuli egin zen, eta, oharkabean, maitagarri eder batean bihurtu zen. Elena aho zabalik geratu zen, ordura arte maitagarriak ipuin-liburuetan bakarrik ikusi zituelako.

"Zure onberatasuna eskertzeko, zure desiorik onena entzungo dut" esan zion maitagarriak, hauek liburuetan esaten duten bezala.

Neskatoak gogoeta egin zuen une batez, eta gero erantzun zuen: "Zoriontsu izan nahi dut". Orduan maitagarria harengana makurtu, belarrira zerbait xuxurlatu eta desagertu egin zen.

Elena emakume egin zen, eta herrialde osoan inor ez zen bera baino zoriontsuagoa. Bere pozaren sekretua galdetzen ziotenean, irribarre besterik ez zuen egiten, eta zera esaten zuen: "Maitagarri on baten aholkua jarraitu dut".

Urteak joan ziren, eta Elena zahartu egin zen, baina beti herriko amona goxo eta zoriontsuena izaten jarraitu zuen. Bizilagunak eta bilobak beldur ziren ez ote zen berarekin hilko bere zorionaren sekretua. Beraz, "Esan zer esan zizun maitagarriak", eskatzen zioten.

Hala, behin, andre zahar zoragarri hark, irribarrez, erantzun zien: "Esan zidan, segurtasuna dutela diruditenek ere, denek dutela nire beharra". Eta horixe egin dut, denei eman, trukean ezer espero gabe, eta bizitza osoan zehar lortu dudana, hori izan da, ZORIONA.

(ahozko tradiziokoa)



Gogoeta

Ikasturte berrian sartu gara. Eskola garaia hasi da eta oraingo honetan ere asko dugu ikasteko! Ez soilik eskolako edukiak, baita ere erlijio eta fede mailan asko sakonduko dugu.

Jesus, bizitzan, besteak zoriontsu egiten saiatu zen eta mezu hori bere inguruan zabaltzen saiatu zen (Jainkoaren Erreinua hedatu nahi zuen). Otoitzaldi honetan, garrantzitsua den adibidea azalduko zaigu. Beraz, adi ibili!



Irakurketa: Joan 13, 1-17 "Oinak garbitzea"

Pazko-jaia gainean zen. Jesusek bazekien mundu hau utzi eta Aitarengana joateko ordua iritsi zitzaiona. Munduan ziren beretarrak beti maite izan zituelarik, azkenean bete betean maitatu zituen.

Deabruak Simon Iskarioteren seme Judasi sartua zion buruan Jesus saltzeko asmoa. Jesusek bazekien dena bere esku jarri ziola Aitak, eta Jainkoarengandik etorria zela eta Jainkoarengana zihoala. Afaltzen ari zela, mahaitik jaiki, soingainekoa erantzi eta, eskuzapia harturik, gerrian lotu zuen. Ondoren, ura konketara bota eta ikasleei oinak garbitzen hasi zen, eta gerrian zuen eskuzapiaz lehortzen.

Simon Pedrorengana iritsi zenean, honek esan zion: "Jauna, zuk niri oinak garbitu?"

Jesusek erantzun zion: "Ni egiten ari naizena zuk ez duzu orain ulertzen, geroago ulertuko duzu."

Pedrok, berriro: "Zuk ez didazu sekula niri oinik garbituko."

Jesusek erantzun: "Garbitzen ez bazaitut, ez duzu nirekin zerikusirik izango."

Simon Pedrok esan zion: "Jauna, orduan, oinak ez ezik, eskuak eta burua ere bai."